

Servicio de Estudios Económicos y Financiación de Centros
Azterlan Ekonomikoen eta Ikastetxeen Finantzaketaren Zerbitzua
Zerbitzu Osagarrien Zerbitzua
Santo Domingo, 8
31001 PAMPLONA/IRUÑA
Tel. 848 426536
seccioncentrosescolares@navarra.es

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**
Departamento de Educación Hezkuntza Departamentua

Langilearen zuzendari nagusiak, ebazpen hau eman du gaur:

"65/2026 EBAZPENA, ekainaren 16(e)koa, Langileriaren zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baitira Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Batxilergoko itunak formalizatzeko ereduak, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan.

Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiak azaroaren 28an emandako 391/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi bat egin zen 2026-2027 eta 2029-2030 ikasturteen arteko aldirako hezkuntza-itunak berritzeko eta hezkuntza-itun berriak egiteko prozedurarako, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Batxilergoko hezkuntza-etapetan. Ebazpen hori geroago aldatu egin zen, Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren otsailaren 16ko 21/2026 Ebazpenaren bidez.

Maiatzaren 20ko 10/2026 Foru Legearen bidez (itundutako unitateak luzatzeari eta funts publikoen bidez sostengatutako ikastetxeetako ikasle-kopuruan izandako aldaketen ondorioz eskola-unitate bakoitzeko ikasleen gehieneko ratioa jaisteari buruzkoa), urtebeteko moratoria ezartzen da 2026/2027 ikasturterako eguneratu behar diren hezkuntza-itunak berritzeko eta aldatzeko gela-murritzaketak aplikatzeko, bai eta ikastetxe publikoetako ikasgela-kopurua planifikatzeko ere, eta ikasturte horretan mantendu egiten dira itunek eragiten dieten hezkuntza-mailetan gaur egun dauden unitate publikoak eta itunduak.

Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamendua onesten duen abenduaren 14ko 416/1992 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz, bidezkoa da itunak formalizatzeko ereduak onestea. Ebazpen honen I. Eranskinean ageri da Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ereduak, eta II. Eranskinean, berriz, Batxilergoko eredu horietan jasotzen dira alderdi bakoitzaren eskubide eta betebeharrak.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 245/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1.º Haur Hezkuntzako bigarren zikloko itunak formalizatzeko ereduak onestea, ebazpen honen I. Eranskinean jaso baita.

2.º Batxilergoko itunak formalizatzeko ereduak onestea, ebazpen honen II. Eranskinean jaso baita.

3.º Ebazpen hau eta haren Eranskinak Hezkuntza Departamentuko web-orrian argitaratzea: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Hezkuntza-itunak>.

Iruñean, bi mila eta hogeita seiko ekainaren hamaseian.

LANGILEAREN ZUZENDARI NAGUSIA, Begoña Unzué Vela."

Hori guztia jakinarazten dizut jakinaren gainean egon zaitezten
eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Iruña, bi mila eta hogeita seiko ekainaren hamaseia.

ZERBITZUKO ZUZENDARIA

A handwritten signature in blue ink, appearing to be 'P. García Azcona', with a large loop and a cross at the end.

Patxi García Azcona

I. ERANSKINA

ADMINISTRAZIO AGIRIA, HAUR HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOKO IKASTETXE ITUNDU BATEKIN LAU URTERAKO HEZKUNTZA ITUNA FORMALIZATZEKO

(xx/2026 Ebazpena, xxxxxren xx(e)koa, Langileriaren zuzendari nagusiak emana)

Iruñean, bi mila eta hogeita seiko aren (e)an.

ALDE BATETIK:

Begoña Unzué Vela andrea, Langileriaren zuzendari nagusia.

BESTE ALDETIK:

.....jauna/andrea,

honako hau den aldetik:

☐ titularra ☐ legezko ordezkaria

ondoan adierazten diren identifikazio datuak dituen ikastetxean:

- a) Titulartasuna:
- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia:
- c) Berariazko izena:
- d) Kodea:
- e) Helbidea:
- f) Herria:
- g) Udalerria:
- h) Baimena (adierazi administrazio xedapena, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean edo Nafarroako Aldizkari Ofizialean noiz argitaratu zen):

Abenduaren 14ko 416/1992 Foru Dekretuaren bitartez onetsi zen Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamendua. Bada, erregelamendu horretako 3.2 eta 25. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta bat etorritik aipatutako ikastetxearen hezkuntza ituna berritzeko prozedura ebazten duen xxxren xx(e)ko xx/2026 Ebazpenarekin.

Doakotzat deklaraturako irakaskuntzak emateko, hezkuntzaren zerbitzu publikoa Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aurreikusten duen moduan ematearren,

HONAKO HAU HITZARTZEN DUTE:

Hezkuntza ituna berritzea, ondoko klausulei jarraikiz:

Lehena.- Hezkuntza itun hau izenpetzen duen ikastetxe pribatua itunaren ondoriozko obligazioen mende jartzen da, eta adierazten du aplikatu beharreko araudian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela, eta itunaren indarraldi osoan horiek mantentzeko konpromisoa hartzen du, hurrengo arau hauetan ezarritako baldintzetan:

- 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duena;
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa;
- 11/1998 Foru Legea, uztailaren 3koa, Batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena;
- 2377/1985 Errege Dekretua, abenduaren 18koa, Hezkuntza Itunei buruzko Oinarrizko Arauen Erregelamendua onesten duena;
- 416/1992 Foru Dekretua, abenduaren 14koa, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamendua onesten duena;
- honako administrazio agiri hau.

Bigarrena.- Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ituna onesten duen xx/2026 Ebazpenean ezarri bezala, honako unitate hauek jartzen dira itunpean:

_____ eskola unitate, Haur Hezkuntzako bigarren ziklokoak, " " hizkuntza ereduan, 2026/2027 eta 2029/2030 ikasturteen arteko aldirako.

_____ eskola unitate iragankor, Haur Hezkuntzako bigarren ziklokoak, " " hizkuntza ereduan, 2026/2027 ikasturterako.

_____ eskola unitate, Haur Hezkuntzako bigarren ziklokoak, " " hizkuntza ereduan, Maiatzaren 20ko 10/2026 Foru Legeak aplikatutako luzamenduaren ondoren 2026/2027 ikasturterako (10/2026 Foru Legea, maiatzaren 20koa, itunpeko unitateak luzatzeari eta eskola-unitate bakoitzeko gehieneko ikasle ratioa murrizteari buruzkoa, funts publikoen bidez mantendutako ikastetxeetako ikasle kopuruan izandako aldaketen ondorioz).

Aipatutako unitate kopurua aldatu egin daiteke itunak indarra duen bitartean, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena.- Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 116.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, itun honek lau urteko iraupena izanen du, 2026-2027 ikasturtearen hasieratik aitzina.

Laugarrena.- Administrazioa beharturik dago ikastetxe itundua sostengatzeko funts publikoak esleitzera, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 12., 13. eta 34. artikuluetan eta, hala badagokio, laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz. Aipatu funts horien zenbatekoa Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean aurreikusitakoaren arabera zehaztuko da.

Hezkuntza Administrazioak irakasleen soldatak ordainduko ditu, ikastetxearen entitate titularraren izenean eginen den ordainketa eskuordetuaren bidez. Ordainketa eskuordetu horrek, hala ere, ez du inolako lan harremanik sortuko Hezkuntza

Departamentuaren eta aipatu irakasleen artean, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 117. artikularekin bat.

Bosgarrena.- 8/1985 Lege Organikoaren 51. artikuluan eta abenduaren 14ko 416/1992 Foru Dekretuaren 14.ean xedatutakoaren arabera, ikastetxe itunduaren titularra beharturik dago itunaren helburu diren ikasketak ematera, honela:

- Dohainik, irakaskuntza horiek emateagatik, ez zuzenean ez zeharka, diru ordainik dakarren kontzepturik bat ere hartu gabe.
- Kasuan kasuko programei eta ikasketa planei jarraikiz eta ikasketak antolatzeko indarra duten arauak loturik.

Seigarrena.- Halaber, ikastetxearen titularra beharturik dago ikastetxean burutzen diren eskola jardura osagarriak, eskolaz kanpoko ekintzak eta eskola zerbitzuak arau hauei egokitzea: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa; Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduko 15. artikulua; uztailaren 2ko 146/2002 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuarekin ituna sinatzen duten ikastetxeen eskola jardura osagarriak, eskolaz kanpoko ekintzak eta eskola zerbitzuak arautzen dituen uztailaren 2ko 146/2002 Foru Dekretuan xedatutakoari egokitzea, baita Hezkuntza Departamentuak aipatu legeak xedapenak garatzeko ezartzen duenari ere

Zazpigarrena.- Ikastetxe itunduetako irakasleen jardura guztiak, irakastorduetakoak eta osagarriak, Administrazioak ordainketa eskuordetu bezala ordaindutakoak, itun bakoitzaren xede den irakaskuntza mailan emanen dira.

Zortzigarrena.- Itun honen ondorioz, ikastetxearen titularra beharturik dago ikasleak onartzeari buruz honako hauetan ezartzen diren arauak betetzera: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren II. tituluko III. kapitulua, unibertsitatez kanpoko ikasketak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta itundutako ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituen apirilaren 28ko 33/2021 Foru Dekretua, edo arau horiek etorkizunean ordeztuko dituztenak.

Bederatzigarrena.- Ikastetxe itunduaren titularra beharturik dago Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen Lege Organikoaren 54. artikulua eta Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduen 26. artikulua aipatzen dituzten gobernu organoak edukitzea. Organo horiek indarra duen araudiari jarraikiz eratu eta berrituko dira eta halaberean erabiliko dituzte beren eskumenak.

Hamargarrena.- Ikastetxe itunduan hutsik gelditzen diren irakasle lanpostuak Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen Lege Organikoaren 60. Artikuluan eta Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduen 26.3 artikuluan xedatutakoaren arabera hornituko dira.

Hamaikagarrena.- Itun honen ondorioz, ikastetxearen titularra beharturik dago Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako ituntzen den unitate kopuru bera jardunean mantentzea, baita, gutxienez, itunen arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ebazpenean ikasle/itundutako unitate bakoitzeko ezarrita dagoen batez besteko erlazioa mantentzea ere,

Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 16. eta 46. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz.

Ikasleen eta itundutako unitatearen arteko batez besteko erlazioa eta jardunean dauden unitateen kopurua txikitzen badira, unitate itunduen kopurua ere txikituko da, edo itun hau deuseztatuko da Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 16. artikulua aipatutako betebeharrak betetzeari uzten bazaio.

Ikastetxearen titularrak arestian aipatu gorabeheren berri eman beharko dio Hezkuntza Departamentuari.

Hamabigarrena.- Ikastetxe itunduaren titularrak beharrezkoak diren publizitate neurriak hartuko ditu, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 18. artikulua ikastetxe itunduaren izaeraren ezagupenari eta, hala bada, izaera propioari doakionean ezartzen dituen beharkizunak betetzeko.

Era berean, ituna gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, hain zuzen ere, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 35. Artikulutik 38.era artekoetan eta 40. artikuluan ezarritakoak.

Hamahirugarrena.- Indarrean diren xedapenek Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren Kontu-hartzaileari eta, hala behar denean, Hezkuntzako Ikuskeren Zerbitzuari esleitzen dieten finantza kontrolaren mende geldituko da ikastetxe itundua, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 41. artikulua xedatzen duen bezala. Gainera, Kontuen Ganberak eta Azterlan Ekonomikoen eta Ikastetxeen Finantzaketaren Zerbitzuak kontrolatuko dute, Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 20ko 50/2019 Foru Aginduan ezartzen den bezala. Foru agindu horretan honako hauei lotutako araudia garatzen da: "Bestelako gastuak" eta "Langile osagarriak" moduluen justifikazioa, irakasleen hautaketa, eta Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe itunduek Hezkuntza Departamentuari jakinarazi beharreko hezkuntza arloko informazioa.

Hamalauugarrena.- Itun hau alda daiteke, Hezkuntza Itunen gaineko Arauen Erregelamenduaren 42. artikulutik 46.era bitarte ezarritako terminoetan.

Hamabosgarrena.- Aplikatu beharreko araudian aurreikusitakoez gainera, hezkuntza ituna azkentzeko arrazoiak dira:

- a) Iraunaldia amaitzea, ituna berri edo luzatzea erabakitzen ez bada behintzat.
- b) Bi aldeak ados jarrita, interes publikoko arrazoiak hori egitea galarazten ez badute, behin Eskola Kontseiluak dioena entzun ondoren.
- c) Foru Administrazioak edo ikastetxearen titularrak itunean bere gain hartutako betebeharrak modu larrian ez betetzea.
- d) Zentroaren titularra den pertsona fisikoa hiltzea edo ezgaiturik gelditzea edo titulartasuna bere gain duen pertsona juridikoa azkentzea.
- e) Ebazpen judiziala, ikastetxearen porrota edo ordainketa etendura deklaritzen duena.
- f) Administrazioak ikastetxeari funtzionamendurako eman zion baimena errebokatzea.
- g) Ikastetxeak bere borondatez jarduteari uztea, behar bezala baimendurik.
- h) Bere garaian ituna izenpetzeko eskaturiko betebeharrak baten bat ez betetzea.
- i) Itunean ezartzen diren bestelako arrazoiak.

Hamaseigarrena.- Itun hau aplikatzerakoan sor daitezkeen auziak Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera ebatziko dira.

Eta horrela ager dadin, dokumentuaren bi ale sinatzen dituzte, goian aipatutako tokian eta egunean.

IKASTETXE ITUNDUAREN IZENEAN.

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN
IZENEAN.

Stua.: _____

Stua.: _____

LANGILERIAREN ZUZENDARI NAGUSIA.

II. ERANSKINA

ADMINISTRAZIO AGIRIA, **BATXILLERGOKO** IKASTETXE ITUNDU BATEKIN LAU URTERAKO HEZKUNTZA ITUNA FORMALIZATZEKO

(xx/2026 Ebazpena, xxxxxren xx(e)koa, Langileriaren zuzendari nagusiak emana)

Iruñean, bi mila eta hogeita seiko aren (e)an.

ALDE BATETIK:

Begoña Unzué Vela andrea, Langileriaren zuzendari nagusia.

BESTE ALDETIK:

.....jauna/andrea,

honako hau den aldetik:

☐ titularra ☐ legezko ordezkaria

ondoan adierazten diren identifikazio datuak dituen ikastetxean:

- a) Titulartasuna:
- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia:
- c) Berariazko izena:
- d) Kodea:
- e) Helbidea:
- f) Herria:
- g) Udalerria:
- h) Baimena (adierazi administrazio xedapena, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean edo Nafarroako Aldizkari Ofizialean noiz argitaratu zen):

Abenduaren 14ko 416/1992 Foru Dekretuaren bitartez onetsi zen Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamendua. Bada, erregelamendu horretako 3.2 eta 25. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta bat etorri aipatutako ikastetxearen hezkuntza ituna berritzeko prozedura ebatzen duen xxxren xx(e)ko xx/2026 Ebazpenean xedatutakoari jarraikiz.

Doakotzat deklaraturako irakaskuntzak emateko, hezkuntzaren zerbitzu publikoa Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aurreikusten duen moduan ematearren,

HONAKO HAU HITZARTZEN DUTE:

Hezkuntza ituna berritzea, ondoko klausulei jarraikiz:

Lehena.- Hezkuntza itun hau izenpetzen duen ikastetxe pribatua itunaren ondoriozko obligazioen mende jartzen da, eta adierazten du aplikatu beharreko araudian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela, eta itunaren indarraldi osoan horiek mantentzeko konpromisoa hartzen du, hurrengo arau hauetan ezarritako baldintzetan:

- 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duena;
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa;
- 11/1998 Foru Legea, uztailaren 3koa, Batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena;
- 2377/1985 Errege Dekretua, abenduaren 18koa, Hezkuntza Itunei buruzko Oinarrizko Arauen Erregelamendua onesten duena;
- 416/1992 Foru Dekretua, abenduaren 14koa, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamendua onesten duena;
- honako administrazio agiri hau.

Bigarrena.- Langileriaren zuzendari nagusiaren xxxx xxko xx/2026 Ebazpenari jarrikiz, haren bidez ebatzi baitzen Batxillergoko unitateen hezkuntza ituna berritzeko prozedura, 2026/2027 eta 2029/2030 ikasturteen arteko aldirako, honako unitate hauek jartzen dira itunpean:

_____ eskola unitate, Batxillergokoak, " " hizkuntza ereduan, 2026/2027 eta 2029/2030 ikasturteen arteko aldirako.

Aipatutako unitate kopurua aldatu egin daiteke itunak indarra duen bitartean, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena.- Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 116.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, itun honek lau urteko iraupena izanen du, 2026-2027 ikasturtearen hasieratik aitzina.

Laugarrena.- Administrazioa beharturik dago ikastetxe itundua sostengatzeko funts publikoak esleitzera, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 12., 13. eta 34. artikuluetan eta, hala badagokio, laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz. Aipatu funts horien zenbatekoa Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean aurreikusitakoaren arabera zehaztuko da.

Hezkuntza Administrazioak irakasleen soldatak ordainduko ditu, ikastetxearen entitate titularren izenean eginen den ordainketa eskuordetuaren bidez. Ordainketa eskuordetu horrek, hala ere, ez du inolako lan harremanik sortuko Hezkuntza Departamentuaren eta aipatu irakasleen artean, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 117. artikuluekin bat.

Bosgarrena.- 8/1985 Lege Organikoaren 51. artikuluan eta abenduaren 14ko 416/1992 Foru Dekretuaren 14.ean xedatutakoaren arabera, ikastetxe itunduaren titularra beharturik dago itunaren helburu diren ikasketak ematera, honela:

- Dohainik, irakaskuntza horiek emateagatik, ez zuzenean ez zeharka, diru ordainik dakarren kontzepturik bat ere hartu gabe.
- Kasuan kasuko programei eta ikasketa planei jarraikiz eta ikasketak antolatzeke indarra duten arauak loturik.

Seigarrena.- Halaber, ikastetxearen titularra beharturik dago ikastetxean burutzen diren eskola jardura osagarriak, eskolaz kanpoko ekintzak eta eskola zerbitzuak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan eta Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduko 15. artikuluan eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuarekin ituna sinatzen duten ikastetxeen eskola jardura osagarriak, eskolaz kanpoko ekintzak eta eskola zerbitzuak arautzen dituen uztailaren 2ko 146/2002 Foru Dekretuan xedatutakoari egokitzera, baita Hezkuntza Departamentuak aipatu legezko xedapenak garatzeko ezartzen duenari ere.

Zazpigarrena.- Ikastetxe itunduetako irakasleen jardura guztiak, irakastorduetakoak eta osagarriak, Administrazioak ordainketa eskuordetu bezala ordaindutakoak, itun bakoitzaren xede den irakaskuntza mailan emanen dira.

Zortzigarrena.- Itun honen ondorioz, ikastetxearen titularra beharturik dago ikasleak onartzeari buruz honako hauetan ezartzen diren arauak betetzera: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren II. tituluko III. kapitulua, unibertsitatez kanpoko ikasketak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta itundutako ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituen apirilaren 28ko 33/2021 Foru Dekretua, edo arau horiek etorkizunean ordeztuko dituztenak.

Bederatzigarrena.- Ikastetxe itunduaren titularra beharturik dago Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen Lege Organikoaren 54. artikulua eta Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduen 26. artikulua aipatzen dituzten gobernu organoak edukitzera. Organo horiek indarra duen araudiari jarraikiz eratu eta berrituko dira eta halaberean erabiliko dituzte beren eskumenak.

Hamargarrena.- Ikastetxe itunduan hutsik gelditzen diren irakasle lanpostuak Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen Lege Organikoaren 60. Artikuluan eta Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduen 26.3 artikuluan xedatutakoaren arabera hornituko dira.

Hamaikagarrena.- Itun honen ondorioz, ikastetxearen titularra beharturik dago Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako ituntzen den unitate kopuru bera jardunean mantentzera, baita, gutxienez, itunen arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ebazpenean ikasle/itundutako unitate bakoitzeko ezarrita dagoen batez besteko erlazioa mantentzera ere, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduen 16. eta 46. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz.

Ikasleen eta itundutako unitatearen arteko batez besteko erlazioa eta jardunean dauden unitateen kopurua txikitzen badira, unitate itunduen kopurua ere txikituko da, edo itun hau deuseztatuko da Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduen 16. artikulua aipatutako betebeharrak betetzeari uzten bazaio.

Ikastetxearen titularrak arestian aipatu gorabeheren berri eman beharko dio Hezkuntza Departamentuari.

Hamabigarrena.- Ikastetxe itunduaren titularrak beharrezkoak diren publizitate neurriak hartuko ditu, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 18. artikulua ikastetxe itunduaren izaeraren ezagupenari eta, hala bada, izaera propioari doakionean ezartzen dituen beharkizunak betetzeko.

Era berean, ituna gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, hain zuzen ere, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 35. Artikulutik 38.era artekoetan eta 40. artikuluan ezarritakoak.

Hamahirugarrena.- Indarrean diren xedapenek Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren Kontu-hartzaileari eta, hala behar denean, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuari esleitzen dieten finantza kontrolaren mende geldituko da ikastetxe itundua, Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 41. artikulua xedatzen duen bezala. Gainera, Kontuen Ganberak eta Azterlan Ekonomikoen eta Ikastetxeen Finantzaketaren Zerbitzuak kontrolatuko dute, Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 20ko 50/2019 Foru Aginduan ezartzen den bezala. Foru agindu horretan honako hauei lotutako araudia garatzen da: "Bestelako gastuak" eta "Langile osagarriak" moduluen justifikazioa, irakasleen hautaketa, eta Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe itunduek Hezkuntza Departamentuari jakinarazi beharreko hezkuntza arloko informazioa.

Hamalaugarrena.- Itun hau alda daiteke, Hezkuntza Itunen gaineko Arauen Erregelamenduaren 42. artikulutik 46.era bitarte ezarritako terminoetan.

Hamabosgarrena.- Aplikatu beharreko araudian aurreikusitakoez gainera, hezkuntza ituna azkentzeko arrazoiak dira:

- a) Iraunaldia amaitzea, ituna berritu edo luzatzea erabakitzen ez bada behintzat.
- b) Bi aldeak ados jarrita, interes publikoko arrazoiak hori egitea galarazten ez badute, behin Eskola Kontseiluak dioena entzun ondoren.
- c) Foru Administrazioak edo ikastetxearen titularrak itunean bere gain hartutako betebeharrak modu larrian ez betetzea.
- d) Zentroaren titularra den pertsona fisikoa hiltzea edo ezgaiturik gelditzea edo titulartasuna bere gain duen pertsona juridikoa azkentzea.
- e) Ebazpen judiziala, ikastetxearen porrota edo ordainketa etendura deklaratzeko duena.
- f) Administrazioak ikastetxeari funtzionamendurako eman zion baimena errebokatzea.
- g) Ikastetxeak bere borondatez jarduteari uztea, behar bezala baimendurik.
- h) Bere garaian ituna izenpetzeko eskaturiko betebeharrak baten bat ez betetzea.
- i) Itunean ezartzen diren bestelako arrazoiak.

Hamaseigarrena.- Itun hau aplikatzerakoan sor daitezkeen auziak Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera ebatziko dira.

Eta horrela ager dadin, dokumentuaren bi ale sinatzen dituzte, goian aipatutako tokian eta egunean.

IKASTETXE ITUNDUAREN IZENEAN.

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN
IZENEAN.

Stua.: _____

Stua.: _____

LANGILERIAREN ZUZENDARI NAGUSIA.